



ARANTZAKO UDALA

ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO ETA FINKATZEKO EZOHIKO PROZESUARI DAGOZKION LANPOSTU HUTSAK MEREZIMENDU-LEHIAKETA BIDEZ BETETZEKO DEIALDIA

IZENDAPEN PROPOSAMENA

Arantzan, 2023ko urriaren 3an.

- **TOKIA:** Arantzako Herriko Etxea.
- **EGUNA:** 2023ko urriaren 3an.
- **ORDUA:** 09:00
- **BERTARATUAK:**
 - Epaimahai burua: Dabid Iturria Almandoz
 - Mahaikidea: Jose Joaquin Urreta Arribillaga
 - Mahaikidea-idazkaria: Nagore Madariaga Iriarte

Epaimahai Kalifikatzailea bildu da, aldi barerako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko ezohiko prozesuari dagozkion lanpostu hutsak merezimendu-lehiaketa bidez izendapen proposamenaren eginbidea burutzeko, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean xedatutakoaren arabera.

Deialdiaren 10. oinarrian xedaturikoaren arabera, epaimahaiak honako hau erabaki du:

1.- ESTIBALIZ URCHEGUI TELLETXEAREN aldeko izendapen-proposamena egitea, bera izan bait izapidetutako egonkortze eta finkatze prozesuan puntuazio handiena lortu dutena.

2.- Akta hau Arantzako Udalaren web guneko egonkortze prozesuko dagokion estekan argitaratzea.

3.- Hemen adierazitako izangaiari jakinaraztea, izendapen proposamena Arantzako Udalaren web orrian argitaratu eta hurrengo 10 egun balioduneko epean honako dokumentazio hau aurkeztu beharko duela:

- a) Nortasun agiri nazionalaren kopia, edo izangaiaren nazionalitatea eta nortasuna frogatzen dituen beste agiri baliokideren batena.
- b) Osasun txosten ofiziala, karguaren eginkizunak betetzea eragotziko liokeen akats fisiko nahiz psikiko edo eritasunik ez duela erakusten duena.
- c) Zinpeko deklarazioa edo deklarazio solemnea, adierazten duena ez dagoela ezgaitua edo gabetua eginkizun publikoetan aritzeko eta ez dela berezia izan administrazio publikoren baten zerbitzutik.
- d) Zin edo promesa, adierazten duena Nafarroako Foru Araubidea errespetatuko duela, Konstituzioari eta legeei men eginen diela eta karguari dagozkion eginkizunak zuzen beteko dituela.

4.- Hemen adierazitako izangaiari jakinaraztea, aski justifikaturik dauden ezinbertzeko kasuetan izan ezik, agiri horiek aurkeztu ez badira, orobat, deialdiko 3. oinarrian eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela egiaztatzen ez dutenek, ezin izanen direla izendatu edo kontratatu, eta baliorik gabe geldituko direla haien jarduketara guztiak, deusetan galarazi gabe beren eskabideko faltsukeria dela eta legokiekeen erantzukizuna.

EPAIMAHAI BURUA,

MAHAIKIDEA,

MAHAIKIDEA-IDAZKARIA,

Dabid Iturria Almandoz

Jose Joaquin Urreta Arribillaga

Nagore Madariaga Iriarte